



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

Gradua: Haur Hezkuntza
ANIZTASUNA ESKOLAN
2016/2017



Moduluaren koordinatzailea: Esti Amenabarro

Moduluan parte hartzen duten irakasgaiak:

Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan: Marta Sarasa

Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan: Ana Gandara

Eskola Inklusiboaren Oinarriak: Esti Amenabarro

Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza: Ursula Luna

Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT): Jose Miguel Correa

Nere Amenabar

1. AURKEZPENA


Ikasketa Plangintzan aurreikusten da ikasleek, ANIZTASUNA ESKOLAN ardatz hartu eta bigarren lauhileko irakasgaien ekarpenak jasoaz, diziplinarteko lan bat garatuko duzuela. GIDA honetan zehaztu dira lan horren nondik norakoak.

"Eskola inklusiboaren oinarriak", "Gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza", "Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)" eta "Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan", "Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan" irakasgaien irakasle-ekipoa lan hau aurreikustean bi irizpide nagusitan bat etorri da:

- 1.- "Aniztasuna eskolan" bezalako aztergai bati aurre egiterakoan, diziplina bakar baten ikuspuntua baino diziplinarteko begirada aberasgarriagoa suertatu daitekeela.




- 2.-Lana planteatzerakoan, saio teoriko eta akademiko hutsa baino, eskoletako bizimodura, bertan gertatzen dena, bertakoen iritzietara eta bizipenetara hurbiltzeko ahalegina izan beharko lukeela lan honek.



Gero eta aldakorragoa den gizarte eremuan, eskola (irakatsi eta ikasi baino haratago doan) espazio moduan, asko aldatzen ari da. Etengabe aldatzen ari dela esan genezake. Aldaketa horien oinarrietako bat, eskolan barnebiltzen diren pertsonak gero eta anitzagoak izatean datza. Aniztasun hori oso izaera desberdinetakoa da gainera. Horregatik beharrezkoa dugu batetik aniztasuna kontzeptu gisa lantzea eta bestetik aniztasuna aintzat hartuta gure inguru hurbilean dauden praktika egokien azterketa bat egitea. Guzti horretarako, modulu honetako irakasle taldeak aniztasun kontzeptura hurbilpen ahalik eta sakonena egiteko baliabideak eskainiko ditu bai eta diziplinarteko lan hau egiteko behar diren aholku eta laguntza ere. Helburua: eskolan gaur aniztasuna aintzat hartuta burutzen diren egitasmoak oinarri hartuta, horien inguruko azterketa lan akademikoa egitea.

2. ANIZTASUNA ESKOLAN: LAN AUKERAK

Ikasle ekipo bakoitzak¹ zehaztu eta proposatuko du aztergaia nondik eta nola planteatuko duen, beti ere gai nagusi honen inguruan: ANIZTASUNA HAUR HEZKUNTZAKO GELAN.



Irakasle ekipoak ANIZTASUNA GELAN lan eremua aztertu eta ikertzeko aukera batzuk proposatzen ditu. Ikasle ekipoek ikusiko dute zer, zertaz eta nola garatu nahi dituzten lanak. Hortik sortuko baitira, segur aski, lan aukera esanguratsu eta motibagarriak.

Metodologiari dagokionez, aukera desberdinak proposatzen ditugu: Behaketa, elkarrizketa, analisi kuantitatiboa...

¹ Ikasle ekipoak. Lau/bost kidez osatutako ekipoak eratuko ditugu, lauhileko honetako bost irakasgaietan jarduteko. Behin izena emanda, klasera etorri eta taldeko lanetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute kide guztiek. Talde bakoitzak kide bat izendatuko du irakasle-ekipoarekin bitartekaritza lana errazte aldera.

3. LAN PROZESUA: URRATSAK ETA EGUTEGIA

Hiru urrats nagusitan antolatu dugu lanaren prozesua. Fase bakoitzak egiteko nagusi bat du, eta lan hori emateko edo aurkezteko data bat zehaztu da, talde guztientzako hitzordu gisara.

I. Urratsa. Aztergaia mugatu eta proposamena zehaztu.

Otsaila

Ikasle ekipo bakoitzak gida hau abiapuntu hartuz, lan proposamen bat itxuratu eta luzatuko du Otsailaren 20rako. Orrialde pare bat izango dira, formatu eskematikoan.

Bertan, lanaren helburuak edo zertarakoa argituko da; "Aniztasuna gelan" eremu barruko aztergai bat zehaztu eta mugatuko da; prozesuan, informazioa lortzeko erabiliko diren iturriak, lanabesak eta teknikak aipatuko dira. Funtsean, ekipoak zer egiteko eta nola jarduteko asmoa duen jaso eta laburbilduko du proposamenak.

Laboratze prozesuan ikas-taldeek irakasle-ekipoaren ekarpenak eta iradokizunak eska ditzakete. Proposamena luzatu ondoren ikas-taldeek irakasleen onespenean oinarritutako oharra jasoko dute.

II. Urratsa. Aurreikusitako lanak garatu.

Martxoa eta Apirila

Bibliografia iturriak landu eta sintetizatu; aurreikusitako elkarrizketa, behaketa saio eta bisitak, analisi kuantitatiboa.., prestatu eta garatu; iturri ezberdinetatik lortutako informazioa antolatu eta laburbildu; eta hiru bat mila hitzetako azken txostena² idatzi... bezalako lanak, martxoan eta apirilean egingo dira. Txostena emateko azken eguna: apirilaren 12a.

Txosten idatzi horrez gain, aukeratutako gai horren inguruan sentsibilizazioa lantzeko narratiba digital bat egin beharko da: ipuina, komikia,... Ahozko aurkezpenaren egunean ere erakutsi beharko dena.

Ikas taldeen proposamenak eta prozesuak berez anitzak izanik, bertan ikasleek izango dituzten laguntza premiak ere askotarikoak izango direla espero badugu ere,

² Txosten idatzia. Egitura orientagarri hau proposatzen dugu:

1. Azala eta aurkibidea zenbakitua
2. Sarrera/aurkezpena
3. Lan prozesuaren deskribapena
4. Lanaren ondorioak. Sintesia.
5. Bibliografia (APA arauen baitan aipatua)
6. Eranskinak (argazkiak, grabazioak, bideo-klipak,...)
7. Balorazio orokorra, auto-ebaluazioa, lana burutzeko behar izan duzun denbora

ekipoek elkartzeko denbora tarteen premia handia izaten dutela ikusi da. Lauhileko bost irakasgaiak 40 eskola ordu eskainiko dizkiote diziplinarteko lanari. Gelan lana prestatzeko astero irakasgai baten lau klase orduak txandaka izango dituzue. Ondokoa da egutegia:

- 02/06 eta 03/13: Eskola Inklusiboaren Oinarriak
- 02/13 eta 03/20: Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza
- 02/20 eta 03/27: Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan
- 03/01 eta 04/03: Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan
- 03/06 eta: Informazio eta Komunikazio Teknologiak

III. Urratsa. Aurkezpenak eta ebaluazioak burutu.

Maiatza

Txostenetan jasotako lan ekoizpena gelan aurkeztuko da³ gelakideen aurrean, horretarako zehaztuta dauden egunetan (maiatzaren 4 eta 5), horretarako bi eskola egun baliatuko dira talde denek euren aurkezpenak egiteko. Aurkezpenekin, funtsean, elkartruke horizontala sustatu nahi da, elkarrengandik ikasten jarraitu ahal izateko. Eta asmo berarekin ekipoek gainerakoen aurkezpenak ebaluatzeaz gain, aukera izango dute lauhilekoaren azken asteko "itzultze kritikoen astean" parte hartzeko. (Ikus hurrengo atala zehatzago: ebaluazioa)

Gogoratu beharreko datak, beraz:

Otsailak 20: Proposamenak (eskema moduan) eta taldearen fitxa luzatzeko azken eguna (tutorearen bitartez, koordinatzaileari eman)

Apirilak 12: Txosten idatzia emateko azken eguna (Tutoreari eman)

Maiatza 4-5 :Ahozko aurkezpenak egiteko egunak

Maiatzaren 8-12: Eskola ordutan "feedbacka edo itzultze kritikoa" burutzeko

4. EBALUAZIOA

Diziplinarteko egitasmo honen ebaluazio prozesua prestakuntza eta hobekuntza aukera bat suerta dadin, lau ebaluazio ekimen berezitu ditugu:

a) batetik, txosten idatzia eta horren ahozko aurkezpena baloratu eta kalifikatuko dira. Biak ontzat ematen badira, emaitzak lauhilekoko irakasgaien azken notan %20eko (2 puntu) balioa izango du. Honek 1,2 kreditu kopurua suposatuko duelarik.

³ Ahozko aurkezpena. Lan idatziaren irakurketa hutsa bihurtu ez dadin, hona irizpide batzuk Ahozko aurkezpenak 20/30 minutu iraungo du (ez gehiago) eta taldekide guztiak parte hartuko duzue. Minutu horietan narratiba digitala ere erakutsiko da. Ondoren, galdera-erantzunen txanda izango da eta talde bakoitzak 10/15 minutuko saioa izango du lanaren inguruko hausnarketa konpartitua egiteko.

Txosten idatziaren kalitatea lan talde batek aztertuko du aurrez adostutako irizpide sorta batez. Ahal den neurrian, ahozko aurkezpenak egin aurretik. Irizpide sorta, txostenak idazten hasi ordurako ezagutzera emango da.

Ahozko aurkezpenak, irakasle bikote batek eta gelako ikas talde guztiek baloratuko dituzte aurkezpen egunean berean aldeztu aurretik ikasleek eta irakasleek adostutako irizpide sorta batez (Ikus-entzunezko baliabideen erabilpen egokia, hizkuntzaren aberastasuna zein zuzentasuna, sormena, aurkezpen ondoko tertuliaren aberastasuna...)

	zeinek zer ebaluatzen du	noiz, zein lanabesez	
autotxekeoa	Ikasle talde bakoitzak bere burua Ibilbidea, lan dinamika, lan denboraren erabilera...	Prozesuaren zehar Txantiloiak, hausnarketa gidioa, txosten anonimoa...	kalifikazioetan eragin zuzenik gabe
itzultze kritikoa	Irakasle ekipoak eta ikasleek Prozesu osoa eta ekoizpena Irakasleen lana	Azken astean Gelan bi lan saio Proposamenak luzatuz	
txostenen kalifikazioa	Irakasle ekipoko bikote batek Lanaren kalitatea	Aurrez adostutako irizpide sorta batez. Ahozko aurkezpenak egin aurretik	biak ongi, kalifikazioen %20
aurkezpenen balorazioa	Gelako talde guztiek besteen aurkezpenak Irakasle bikote batek ere	Aurkezpen egunetan Aurrez adostutako irizpide sorta bat erabiliaz	

b) eta bestetik, ikasle talde bakoitzak ebaluatuko ditu lan prozesuko ibilbidea, lan dinamika, denboraren erabilera... Hartarako gidio bat eta hainbat lanabes izango ditu. Autotxekeo horren ondorioz txosten anonimo bat emango du ikasturte amaieran.

Eta ikasturteko azken astean "itzultze kritikoa" egiteko bi lan saio izango dira irakasleek eta ikasleek prozesua bera eta ekoizpena, eta batzuen eta besteen lana aztertu ondoren, iradokizunak eta proposamenak luzatu ahal izateko.

1. G003. IKASKUNTZA-TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA **Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua.**

2. G004. BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA **Ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo bizikidetza sustatzea. Bizikidetza demokratikoaren arauak eraikitzean ikasleek parte har dezatela sustatzea eta gatazkak bake giroan konpondu daitezela elkarlanean ahalegintzea.** Ikaskuntzaren eta bizikidetzaren testuinguruak sistematikoki behatzen jakitea eta horien inguruan gogoeta egiten jakitea, eta, oro har, ikasleen gaitasunak hezkuntzaren ikuspegitik eta etengabeki ebaluatzeko tresna nagusi gisa behaketa erabiltzeko gai izatea.

3. G009. HAUR ESKOLA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK **Haur-hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamenduak eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea.**

4. G010. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA **Gurasoen orientatzaile gisa jardutea, familia-hezkuntzarekin loturik, 0-6 urte bitarteko epealdian,** eta ikasle bakoitzaren familiarekin eta gainerako familia guztiekin izaten diren tratu eta harremanetan gizarte-gaitasunak menderatzea. Tutoretza eta koordinazio-lanak egitea tutoretza-ekintzarako proposamenak antolatuz, eta familiekin eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuekin elkarlanean jardutea eskolako jarduera ikaslearen gizarte eta familia mailako ingurunearekin harremanetan jartzeko eta hezkuntza-prozesuan eraginkortasun handiagoz eragiteko.

5. G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO DISEINUA **Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionalei eragiten dieten oinarrizko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza-prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diona. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.**

6. G014. HAZKUNDE PERTSONALA **Epealdi honetan neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.**

7. G015. KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAK **Komunikazio-konpetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenezkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.**

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (ikasleei idatziz eman moduluko konpetentziak horien lorpen maila ebaluatu dezaten)
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?